



305/2025 EBAZPENA, abenduaren 09koa, Arabako Osasun Mentaleko Sareko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Arabako Osasun Mentaleko Sareko Barne Medikuntzako Zerbitzuko Atal Sanitarioko burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzen duena.

AURREKARIAK

Arabako Osasun Mentaleko Sareko zuzendari-gerentearen urriaren 17ko 234/2025 Ebazpenaren bidez deialdi publikoa egin zen Arabako Osasun Mentaleko Sareko Barne Medikuntzako Zerbitzuko Atal Sanitarioko buruaren lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2025eko azaroaren 05eko EHAA 213. zk. eta 2025eko azaroaren 14ko BOE 274. zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2025eko abenduaren 5ean amaitu zen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaituta, Arabako Osasun Mentaleko Sareko zuzendari-gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko. Gainera, 10 egun balioduneko epea ezarriko du, Ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak aurkezteko administrazio-bidean.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Arabako Osasun Mentaleko Sareko Barne Medikuntzako Zerbitzuko Atal Sanitarioko buruaren lanpostua betetzeko lehiaketako onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrenda onartzea. (I. eranskina)

Bigarrena.- Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Hirugarrena.- Ebazpen honen aurka erreklamazioa aurkez dakioke Arabako Osasun Mentaleko Sareko Zuzendaritza Gerentziari, 10 egun balioduneko epean, Ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko abenduaren 09a.

Arabako osasun mentaleko sareko zuzendari-gerentea
EB (311/2023 Ebazpena, azaroaren 22koa)

Langileen zuzendaria

ANDREA SALINERO BERASALUCE

I ERANSKINA

ARABAKO OSASUN MENTALEKO SAREKO BARNE MEDIKUNTZAKO ZERBITZUKO
ATAL SANITARIOKO BURUAREN LANPOSTUA

Onartuen behin-behineko zerrenda:

- FERNANDO CIBRIAN GUTIERREZ

Baztertuen behin-behineko zerrenda:

- Inor ez